

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Hutsen zuzenketa, 2026/2080 iragarkian, "Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako Vc-2 Bizikleta Bidea Eraikitze Proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko buruzkoan

2026ko uztailaren 15eko ALHAOn (80. zk.) argitaratu zen 2026/2080 iragarkiaren euskarazko zein gaztelaniazko bertsioetan zenbait huts atzeman direnez, osorik argitaratzen da ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 15a

Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua
ROBERTO MARROQUÍN TABORDA

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

"Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako Vc-2 Bizikleta Bidea Eraikitze Proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2026ko uztailaren 7an, 335/2026 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

"Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua" gauzatzeko behar den desjabetzea handitzea. Okupatzeko beharra adieraztea. Kreditu atxikipena. Proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda aldatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 27ko 85/2024 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen "Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua" ren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren titularrari ahalmena eman zitzaion proiektua gauzatzeko behar diren azalerak handitzeko edo aldatzeko.

Proiektu hau gauzatzeko eragindako finken desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu da.

"Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiekturako" hasitako 2023/06 desjabetze espediente dela-eta, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuak, 2026ko martxoaren 24an, jakinarazi zuen aipatutako proiektuko obrak ia egikarituta egonda berrikusi egin dela, bideen jabari publikoko zona erregularizatu nahian, eraginpeko lurzatietan egin den okupazio erreala, eta ondorioztatu dela aurreikusitako desjabetzea ez dela nahikoa izan kasu batzuetan. Beraz, beharrezkoa izan da hainbat finkatan desjabetzea handitzea.

Hala, 13/000 finkan plataforma bat egin da, eta, bertan, bizikleten mantentze lanetarako hainbat material instalatu da. Ondorioz, 14 m²-ko okupazio gehigarria egin behar da behin betiko okupazioan, eta, beraz, 13/100 finka sortu behar da gehitze horren ondorioz.

Bestalde, 14/000 eta 15/000 finketatik igarotzen den telefonia zerbitzua birjartzeko, proiektuan zehaztutakoaz bestelako trazadura bat egin da.

Horrek esan nahi du proiektuan 14/000 finkarako aurreikusitako okupazioen eta zortasunaren hasierako azalera murriztu egingo dela, honela: behin betiko okupazioa, 1.866 m²-tik 1.860 m²-ra; aldi baterako okupazioa, 643 m²-tik 225 m²-ra; eta lurpeko zortasuna, 643 m²-tik 225 m²-ra.

Aitzitik, 15/000 finkaren kasuan, xedatutako telefonia trazadura berrirako beharrezkoa da desjabetze azalera handitzea, aldi baterako okupazioari eta lurpeko zortasunari dagokienez, 420 m² bi kasuetan. Horretarako, 15/100 finka sortzea proposatzen da.

Hori dela-eta, proiektua gauzatzearen ondorioz, 13/100 eta 15/100 finkak sortzen dira, foru agindu honen I. eranskinean agertzen diren eraginekin, eta aldatu egiten dira "Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektuaren" eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendan ageri diren 14/000 finkaren eraginak.

13/100 eta 15/100 finketan eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 3.786,52 eurokoa da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta zabaltzea aurreikusten du, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz.

Era berean, esan behar da presaz okupatu beharrekotzat adierazteak egikaritu beharreko proiektuen handitzeak ere hartzen dituela, eta, beraz, presako prozeduraren eraginpean dauden ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak egin behar dira.

Ikusi dira Desjabetze Atalak eta Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Vitoria-Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitze proiektua" gauzatzeko behar den desjabetzea handitzea 13/100 eta 15/100 finketan, I. eranskinean adierazten den bezala.

Bigarrena. Adieraztea handitze horren eraginpeko ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetze, aldi baterako okupatze eta telefonia zortasuna ezartze aldera.

Hirugarrena. 3.786,52 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontuaren 50106. G/453501/60000505 "Desjabetzeak" aurrekontu aplikazioaren kontura, 13/100 eta 15/100 finketako eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Laugarrena. Proiektu hau gauzatzeko eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendako 14/000 finkaren eraginak aldatzea, II. eranskinean zehazten denaren arabera.

Bosgarrena. 13/100, 14/000 eta 15/100 finken desjabetzea izapidetzea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako presazko prozeduraren bidez.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.”

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak Sailaren bulegoetan Lege Eta Administrazio Zerbitzua Desjabetze Atala- ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legeko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 8a

Bide Azpiegituren zuzendaria

MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA



PROIEKTUA / PROYECTO
Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitzeko proiektua
Proyecto de construcción de vía ciclista VC-2 Vitoria-Gasteiz - Parque tecnológico de Alava
I. ERANSKINA / ANEXO I
Udal Mugartea / Término Municipal: Vitoria-Gasteiz

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²				Esp./Expte. 2023/6-	
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN- BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA: Telefono linearen kanalizazioa (2,5 m)			EGUNA
							ORDUA			
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²				DÍA	
		POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE: Telefónica subterránea (2,5m)	HORA		
13/100	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: RETANA	46	66	MENDIA B / MONTE B	14				29/07/2026	10:45
15/100	SANTOS AYALA, RAMIRO	46	68	ZELAIA / PRADERA		420		420 m2	29/07/2026	10:00



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azpiegituren Saila
Departamento de Movilidad Sostenible
e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO
Gasteiztik Arabako Parke Teknologikorako VC-2 bizikleta bidea eraikitzeko proiektua
Proyecto de construcción de vía ciclista VC-2 Vitoria-Gasteiz - Parque tecnológico de Alava

II. ERANSKINA / ANEXO II
Udal Mugartea / Término Municipal: Vitoria-Gasteiz

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²				Esp./Expte. 2023/6- A	
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN- BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA: Telefono linearen kanalizazioa (2.5 m)	EGUNA		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²		SERVIDUMBRE: Telefónica subterránea (2.5m)	DÍA	HORA	
14/000	ADMINISTRAZIO-BATZAR / JUNTA ADMINISTRATIVA: RETANA	POLIGONO	PARCELA	B MENDIA / MONTE B	DEFINITIVA	TEMPORAL		29/07/2026	10:45	
		46	76		1.860	225	225 m2			